

POLITIKA OROKORRARI BURUZKO URTEKO ADIERAZPENA

2020-10-27

1.- Hiria zenbakitan. Zenbait zertzelada

Hiriari buruz jarduteko urtero egiten dugun Osoko Bilkura honetan nire lehen hitzak beti izan ohi dira gure Hiriak eskaintzen dituen zenbaki nagusien aipamena egiteko. Azken finean, zenbakiak zenbaki izanda ere, modu objetiboan gauzak neurtzeko tresna baliagarria izaten bait dira.

Zenbakiak aztertzerakoan, horietako asko 2019. ekitaldi beteari dagozkion zenbakiak direla kontuan hartu beharra dago, eta jakina, bizi dugun egoera honetan, horietako askok aldaketa nabarmena izan dutela guztion bistakoa da. Aurrerago jardungo naiz horretaz, baina egia da 2020ko martxoak muga bortitza markatzen duela esparru askotan, baita datuetan ere.

Hala ere, uste dut bizi dugun egoerak ondorio nabarmenak izanda ere, ez dituela hiriaren joera eta ildo nagusiak aldatzen. Kasu batzuetan zenbait gauza moteldu eta beste batzuetan azkartu egin ditzake, baina oinarriak ez dira aldatu.

2019 urteari begiratzen badiogu, biztanle kopuruak 188.000tik gora egin du, hain zuzen ere 188.191 donostiar izanda bukatu genuen urtea. Eta gorakako joera hori azken bost urteetan ematen ari den joera da, ez da beraz salbuespeneko datu bat.

Gorantzako joera horren xehetasunari erreparatzen badiogu, garbi ikusiko dugu azken urteotan jatorriz atzerritarrak diren biztanleei esker gertatzen dela hazkunde hori. Perspektiban begiratuta, 20 urtetik hona bertakoen populazioak behera egin du, 5.383 pertsona gutxiago, eta jatorriz atzerritarra denak nabarmen gora: 12.825 pertsona.

Horrek bi ondorio nagusi dakartza: Batetik biztanle kopuruak gora egitea eta bestetik zahartze prozesua ez hain azkarra izatea. Esan daiteke beraz “belaunaldi erreleboa” esaten dugun hori atzerritik datozen pertsoneri esker ematen ari da gure Hirian. Eta hori balioan jartzea ezinbestekoa deritzot, askotan batzuek mesfidantzaz begiratu ditzaketen migratzaileak berebiziko ekarpena egiten baitiote gure Hiriari.

Aurtengo datuak isten direnean jakingo dugu bizi dugun egoerak zein eragina duen fenomeno honetan. Egia da aurreko krisialdiak etena ekarri zuela prozesu honetan. Edonola ere, perspektiban begiratuta eta etorkizunera begira, Hiriak duen joera argi bat delakoan nago.

Beste datu bat azpimarratu nahiko nuke demografiaz ari garen honetan. Datuak datu baitira, usteetatik haratago dijoaz. Adibidez, auzoka aztertzen bada biztanle kopuruaren eboluzioa, ezin baieztatu daiteke turismoaz jarduterakoan askotan erabiltzen den topikoa, alegia, gune batzuek bertako biztanlez hustutzen ari direla turistifikazioa dela eta. Adibide xume bat jartzearen, Erdialdeak 2019an 61 biztanle irabazi ditu Altzak eta Amara Berrik batuta irabazi dituztenak baina gehiago (4 lehenak eta 44 bigarrenak).

Hiriak 2019an isterakoan zituen adierazle ekonomiko nagusiei erreparatzen badiegu, esan beharra dago argazki orokorra baikortasunerako arrazoia ematen zuela.

Y es que, en efecto, analizados los principales indicadores relativos a la actividad económica de la Ciudad, se puede afirmar que el año 2019 fue excepcional. Se alcanzó la menor tasa de desempleo desde 2008. De hecho, durante el año, el 37,5% del empleo creado en Gipuzkoa se había creado en San Sebastián (muy por encima del 26,24% que representa nuestra población en Gipuzkoa). Además, el empleo se creó en actividades consideradas de alto valor añadido, Donostia representa el 60% en la generación de este tipo de empleo en Territorio el pasado año.

Siendo el sector servicios el que de forma abrumadora genera empleo en nuestra Ciudad, cabe destacar, al contrario de lo que en ocasiones se cree, que más allá de la hostelería, la educación, los servicios informáticos y la investigación y el desarrollo son generadores de empleo de forma notable en nuestra Ciudad. Así lo fueron claramente en 2019.

Cabe destacar el crecimiento que se ha producido en los últimos años de las actividades profesionales, científicas y técnicas en la Ciudad. A tal punto que en lo que se refiere al número de establecimientos, ha superado al comercio en la Ciudad.

El mayor gasto en I+D y el crecimiento del empleo en actividades de investigación y desarrollo que se ha venido produciendo durante los últimos años nos viene a dar cuenta de la configuración de la economía de nuestra Ciudad, en la que las actividades ligadas al conocimiento siguen ganando peso de forma notable. Y lo señalo especialmente porque en ocasiones la impresión que el debate político genera, puede dar una visión equivocada con respecto a las actividades que se desarrollan en nuestra Ciudad. Donostia es una Ciudad en la que el sector servicios tienen un peso extraordinario, pero dentro de ese sector, la actividad está muy diversificada.

Hasieran nioen 2019ko datuek eskaintzen duten argazkia 2020ko martxoak aldatu duela. Orain hitz egingo dugu horretaz. Baina berriro diot, uste dut bizi dugun egoera zail eta konplexu honetan garrantzitsua dela perspektiba ez galtzea, eta Hiriaren ezaugarri eta eboluzio nagusiak zeintzuk diren bistatik ez galtzea.

Martxoan etorri zitzaigun ezusteko aldaketa.

2.- 2020ko Martxoa: Ezusteko aldaketa.

a) Krisiaren kudeaketa.

Lehen atal honetan, Udalaren jarduna erabat baldintzatu duen faktore batez hitz egin nahiko nuke. Martxoaren 11tik gaurdaino, udalaren baliabide eta indarrak osasun krisiaren kudeaketara zuzendu dira. Uste dut guztiak bat etorriko garela lehentasuna hori zela eta dela esaterakoan. Eta noski, hori egiteak suposatzen du lehenago lehentasun zirenak beste maila batera pasatzen direla, bai dirutan eta baita esfortzuan ere.

Egia da une ezberdinak bereiztu daitezkeela, eta orain bizi dugun egoera ezin dela udara aurretik izandakoarekin alderatu, nahiz eta egungo egoerak ez duen etorkizun itxaropentsurik irudikatzen. Egoera hau kudeatzen jarraitzeak eragin nabarmena dauka udalarengan. Baita gaur egun ere.

Egia esan zaila zait krisiaren kudeaketaz aritzerakoan laburpen bat egitea, krisiak urte honen jardunaren erdia baino gehiago eraman duelako jada, baina saiatuko naiz labur hitz egiten.

Martxoaren 3an hasi zen udalarentzat etapa hau. Etorri zitekeena susmatuz, egun horretan Udaleko Koordinadore Orokorriari Udal egitura prestatzeko enkargua eman zitzaion.

Martxoaren 12an, Zuzendari guztiekin bilera egin zen zetorrena partekatzeko. Eta bilera horretan jada, zerbitzu/departamentu kritiko eta ez kritikoen artean banatu zen Udala.

Martxoaren 13an egoera kudeatzeko lantalde teknikoa bildu eta Udala eta funtsezkoak ez diren zerbitzuak isteko aurre ikuspena egiten da. Aurre ikuspen hori berretsi egingo da Lehendakariak egun horretan bertan egindako larrialdi deklarazioarekin eta hurrengo egunean Espainiako gobernuko presidentek egindako alarma egoera deklarazioarekin.

Denbora horretan egoera kudeatzeko Koordinazio Batzordea izan da Udalak izan duen tresna nagusia. Alkatea eta Koordinatzailea Orokorra buru zirelarik, funtsezkoak ziren zerbitzuek eta zuzendaritzek osatua. Martxoaren 3tik ekainaren 3ra bitartean 40 aldiz bildu zen talde hau.

Me gustaría mencionar un dato que normalmente pasa desapercibido, pero que da cuenta de lo complejo que ha resultado gestionar esta situación. De marzo a junio se han gestionado: Una declaración de estado de alarma y 6 prórrogas de la misma, 8 Reales Decretos con medidas derivadas de la Declaración de alarma, 14 ordenes ministeriales e instrucciones dictadas por el Gobierno de España y 6 decretos, criterios y recomendaciones provenientes del Gobierno Vasco. Eso sin contar la nueva declaración de emergencia producida en agosto y sus órdenes derivadas, que desgraciadamente empiezan a multiplicarse una vez mas.

Todo ello ha supuesto una enorme tarea, un gran reto en un terreno que era desconocido para todos. Porque creo que es bueno que todos hagamos un ejercicio de humildad y reconozcamos que nadie estaba realmente preparado para esto. Se han cometido errores, han existido descoordinaciones, dudas y muchas incertidumbres. Pero honestamente creo que este Ayuntamiento ha sabido dar una respuesta adecuada a la situación creada. Y en gran medida lo ha hecho porque la implicación y respuesta de las personas que lo integran ha sido capaz de superar muchas barreras. Quiero aprovechar esta ocasión para agradecer a todas las personas que componen esta organización, incluidas las entidades y sociedades, por su entrega, dedicación y espíritu de colaboración. De otro modo no hubiese sido posible adaptarse a la situación y ofrecer la respuesta que había que ofrecer en cada momento.

Además del Grupo de Coordinación, se han ido creando grupos específicos que han ofrecido respuestas a temas muy diversos: De acción social, financiera y contratación, seguridad y emergencia, cultura, impulso económico, terrazas, playas, permisos y autorizaciones, etc.

En este contexto, hemos estado en comunicación permanente con los sectores afectados y los agentes implicados, y hemos tratado de buscar un equilibrio razonable, priorizando medidas en un doble sentido:

Medidas de carácter social destinadas, prioritariamente a la atención y cuidado de las personas sin hogar, ayudas económicas para alimentación, medidas contra la violencia machista y a menores, así como el proyecto de acompañamiento y solidaridad con las personas mayores “Lagunkate”.

Y por otra parte medidas de carácter económico que tratan de mantener la actividad: Nuevo calendario fiscal, aplazamiento del pago de impuestos y tasas, devolución de cuotas, plan de reactivación económica, apuesta por la actividad cultural, etc...

Gauza asko dira azken hilabeteotan egindakoak, baina bi aipatzea gustatuko litzaidake bereziki:

Lagunkate: Guztiok ezagutzen dugu ekimen hau zertan datzan, konfinamentu garai latzenetan udal langileen inplikazioari esker abian jarri zena. 20.000 goratik Adineko pertsonekin harremanetan jarri ginen, euren egoera ezagutzeko eta laguntza behar izanez gero eskainiz. Laguntza hori eskaintzeko gainera eragile eta elkarteen eskuzabaltasuna izan dugu eta daukagu.

Bi aipamen egin nahiko nituzke honen inguruan. Lehenengoa, ekimen hau burutzea posible izan dela Lagunkoia ekimenak aurretik egindako lanari esker. Komunitatea sortzea da une honetan gure hiriak duen erronka nagusienetakoa, eta hori lantzearen ondorioz dator gero, beharrezkoa den momentuan halako ekimenak burutu ahal izatea. Lagunkoia proiektuan egindako lana egin ez balitz Lagunkate ez litzateke posible izango.

Eta bigarrena, beste gauza askorekin gertatzen den bezala, egoera zail honek ikasteko aukera eskaini digu. Egindakoak bere legatua utziko dut. Ikasitakoa baliatzen jakin behar dugu orain, eta horregatik, ekimen honek jarraipena dauka gaur egun ere.

Kultura: Guztiok somatzen dugu bizi dugun egoerak kultura munduarengan eta kultura eragileengan duen eragin bortitza. Eta askotan esan izan dudana errepikatuaz, momentu zail batean erabaki bat hartzea tokatu zitzaigun. Apirilean bizi genuen testuingurua gogora ekarri nahi dut. Une horretan, udarara begira, jarrera nagusia guztia bertan behera uztearena zen. Hori erabaki zen leku askotan eta hori zen EUDELEk berak eskatzen zuena. Baina Donostiak beste apustu bat egin zuen. Eta baita asmatu ere.

⑩ **4 millones destinados a la actividad cultural en verano** (Zinemaldia, Musika Hamabostaldia, Jazzaldia, Abuztua Donostian...), inversión directa en un sector en seria crisis.

Orain, emaitza ikusita, batek pentsa dezake erraza zela. Ez da horrela izan. Hartutako erabaki horrek askotan korrontearen aurka joatea eskatu du, gauzak beste modu batera egiten ikastera behartu gaitu. Donostiak egindako apustuak gainera bidea ireki du beste leku askotan ere pareko dinamikak martxan jartzerako orduan.

Baina hemen ere, Donostiak hartutako bidea azaltzerakoan, ezinbestekoa da gure Hirian dagoen ekosistema aipatzea. Donostiak erabaki hori hartu zezakeen bere ezaugarri nagusien artean kulturaren alde egiten duen apustua daukalako, eta hori ez da egun batetik bestera lortzen den gauza. Etorkizun zailari begira ere, garbi dago zailtasunak zailtasun, kulturaren aldeko apustu garbia egiten jarraitu beharra daukagula.

b) Kriaren ondorioak.

Bizi izan dugun eta bizi dugun egoeraren ondorioak askotarikoak dira. Baina beste gauza batzuek hitz egiten hasi aurretik, utziko didazue puntu honetan gure artetik joan direnak gogora ekartzen. Pandemiak berak eraman dituenak eta baita

pandemia garaian joan zaizkigunak. Gogorra izaten ari da benetan maitatzen ditugun pertsonak behar bezala ezin agurtzea. Guztion gogoan izango dira, eta Donostiak izango du guzti horiek oroitzeko lekua.

Krisiaren ondorioak nabarmenak dira, eta esparru askotan gainera. Batzuek sumatu ditugu eta somatzen ditugu. Beste batzuek etorkizunean sumatuko ditugu. Egoera luzatzen dijoan heinean, eta une honetan kezkatuak ikusten dugun eboluzioaren aurrean, ez da erraza jakitea ondorioak noraino sufrituko ditugun. Baina jakin badakigu zein esparrutan gertatzen diren nabarmenenak.

Bakardadea. Bizi izandako egoerak inoiz baino gehiago jarri du agerian gaur sekula baino beharrezkoagoa zaigula komunitatea eraikitzea. Aurretik hori bagenekien, eta azken urteotan hainbat izan dira helburu horrekin abian jarritako ekimenak. Orain horiek indartzea dagokigu. Eragileekin lankidetzan, udalak komunitate horren jostuna izan behar du.

Pandemia egoera hau bizi aurretik egin genuen Gobernu Programari erreparatzen badiogu konturatuko gara hori zela markatzen genuen helburu nagusia. Orain inoiz baino beharrezkoagoa zaiguna.

Zalantzarik gabe, guztiak kezkatzen gaituen beste ondorio nagusienetakoa egoera honek ekonomian duen eragina da. Horrek gero enpleguan eta gizarte kohesioan sortu ditzakeen kalteak dira dudarik gabe larrienak.

Ostalaritza, merkataritza, turismoa, kultura eta kirola dira eragin larrienak sufritzen dituzten sektoreak. Aldakorrek diren datu batzuek eskaintzearen, gure hirian maiatzean 10.220 ABEEErekin (ERTE) gailurra jo genuen. Abuztuan horietatik 1.676 geratzen ziren indarrean. Hemendik aurrera ikusiko dugu zein den horien joera, baina ez dut ukatuko kezkatuta nagoela, bereziki ostalaritzari dagokionean.

En lo que a desempleo se refiere, según el último dato registrado, en comparación con el mes de enero que registraba 7.599 desempleados en Donostia, hoy tenemos 2.000 desempleados más. Hemos pasado del 8,6% en enero al 10,8% en setiembre. Y todos sabemos cuáles son los principales sectores afectados.

El Ayuntamiento lo ha tenido muy claro desde el principio, y ha volcado todos sus esfuerzos en ayudar a dichos sectores. De forma inmediata pusimos en marcha el Plan de Reactivación económica, destinando ayudas directas al comercio y a la hostelería.

⑩ PREK: 7,7 millones destinados en dos fases (bonos al consumo, planes de promoción de empleo, ayudas directas al comercio...)

⑩ Decidimos aplazar el cobro de tasas e impuestos municipales, algo que supuso un impacto en términos de merma provisional de ingresos por valor de 65 millones de euros y una pérdida de ingresos de medio millón de euros por el no cobro de intereses.

Hemos modificado las ordenanzas fiscales para posibilitar exenciones de diversas tasas, hemos puesto en marcha Donostia Market Plaza, hemos lanzado bonos de consumo, hemos reorientado la promoción turística al mercado de proximidad, hemos flexibilizado la normativa de terrazas, hemos posibilitado la actividad de los locales de categorías 3 y 4 en hostelería. Hemos celebrado contra viento y marea el Jazzaldía, la Quincena musical y el Zinemaldia. Hemos apostado por hacer frente al no hacer.

Y vamos a tener que seguir haciéndolo. Acabamos de dar un nuevo paso con la segunda fase del Plan de Reactivación Económica, haciendo especial énfasis en el empleo y en la transformación de las actividades económicas a la nueva

realidad. Acabamos de suscribir el convenio que pone en marcha los bonos turísticos.

Todo va a ser necesario, y el Ayuntamiento seguirá trabajando intensamente en favor de la recuperación de la actividad económica y del empleo en Donostia. Esa es la mejor apuesta que podemos hacer por nuestros ciudadanos y por la cohesión social en nuestra Ciudad.

Pero al igual que lo hice cuando lanzamos el primer Plan de Reactivación, hoy quiero apelar una vez más a la comunidad para hacer frente a esta situación. Tenemos la obligación de ayudarnos mutuamente, somos el principal resorte que puede lograr ese objetivo que tanto repetimos: Tenemos que salir adelante todos, tenemos que salir adelante juntos. Tenemos que cambiar nuestros hábitos. Cuando consumimos, tenemos que tomarnos la molestia de hacerlo en nuestro comercio local, tenemos que ayudar a nuestra hostelería, tenemos que ponernos la mascarilla, lavarnos las manos y participar de la vida cultural de nuestra Ciudad. Y a todos nos corresponde poner de nuestra parte. También a quien es propietario de un local o de una vivienda, siendo sensible ante las dificultades que atraviesa quien desarrolla su actividad en el mismo o está pasando un mal momento para atender a las rentas.

Krisi egoera honek eragiten dituen ondorioetaz ari naizen honetan derrigorrezkoa da Udalak berak sufritzen dituen ondorioetaz aritzea. Ogasun eta Finantza Delegatuak behin baino gehiagotan azaldu ditu xehetasunez. Zerga bidezko diru sarrera gutxiago, atal batzuetan behar berriak, bereziki gizarte zerbitzuetan, eta eskaintzen diren zerbitzu publiko askotan defizitaren hazkundera.

Arduratsu izan nahi badugu, hori ere oso kontuan izan beharreko gauza da. Baina horretaz adierazpen honen amaieran arituko naiz.

d) Etorkizuna.

Ez da erraza aste honetan etorkizunari begirada luzatzea. Laino beltzak ikusten ditugu berriro zeruertzean. Negu gogorra izango da aurtengoa. Eta aurre egin beharko diogu horri ere.

Arduraz jokatzea dagokigu orain, norberak hartu behar du ardura hori bere jokamoldeetan. Neurriak, mugak, debekuak hartu beharko dira, baina gutako bakoitzak ez badugu barneratzen ardura gurea dela, oso zaila izango da egoera kudeatzea.

Ez dugu bistatik galdu behar gure osasun sistemaren gaitasuna gainditzeak ondorio latzak dituela guztiontzako. Norberak bere burua zainduz zainduko ditugu besteak. Kurba gora egiten duen honetan gogora ekarri nahi ditut osasungintzan eta zaintzan dabilzan langile guztiak. Beraiei ere zor diegu zuzen jokatzea.

Baina etorkizunari begiratzerakoan gure obligazioa da ere aurrerago begiratzea.

Krisi honek gauza asko irakatsi dizkigu. Eta horietako batzuek ez genituzke ahaztu behar. Etorkizuna eraikitzeko gakoa den hitza IRAUNKORTASUNA / SOSTENIBILIDAD izango da. Bai gizarte arloan, bai ingurumen arloan eta baita ekonomian ere.

Hori ere aurretik bagenekien. Orain ordea horren beharra daukagu.

Gobernu programari erreparatzen badiogu, konturatuko gara bertan finkatzen genituen helburuak berebiziko garrantzia hartu dutela egoera berri honetan.

Egongo dira egitasmo batzuek lehen zuten lehentasuna orain ez dutenak, eta egoera berri honen poderioz denbora luzeagotan kudeatu beharko ditugunak. Beste batzuk aldiz lehen lerroan kokatu zaizkigu, azkartu egin dira.

Sin lugar a dudas, y estoy plenamente convencido de que hablo en nombre de todo el Gobierno Municipal, el programa de

gobierno que presentaba en el Pleno de hace un año tiene hoy más vigencia que nunca. Es la hoja de ruta que este Ayuntamiento debe seguir a la hora de abordar el futuro de nuestra Ciudad.

Sin duda, habrá tiempos, oportunidades, prioridades que cambien en esta nueva situación, pero no el hilo conductor. Entiendo y sospecho que hay quien trata de aprovechar las circunstancias para colar su propia agenda, aquella que ya tenía antes. Ya hemos podido ver alguna prueba de ello, pero debo constatar que entre las muchas consecuencias que ha tenido esta crisis, una de ellas es la de haber reforzado el compromiso de la coalición de gobierno en torno al programa de gobierno.

Por eso, quiero traer a este pleno los ejes estratégicos del programa de gobierno, su realización y su desarrollo de cara a futuro.

3.- Udal Gobernu egitasmoaren ildo estrategikoak:

a) Kalitatezko enplegua eta garapen ekonomikoa

Lehen ildo gisa ezartzen genuek honek inoiz baino gaurkotasun handiagoa dauka egungo egoeran.

Gure Hirian berrikuntza, teknologia, zientzia eta formakuntza bultzatzeko konpromisoak eta balio erantsi handia duten etorkizuneko sektoreak bultzatzeko konpromisoak ezagutu dituzte azken hilabeteotan pauso berriak. 2. Talent House proiektua aurrera doa, behin esleituta, gertuago gaude gaur egun Talent Houseak eskaintzen digun talentua erakartzeko gaitasuna bikoizteko.

Onartu dugu Miramongo plan berezia, eta horrek ahalbidetu du une honetan arlo bio-sanitarioan daukagun enpresarik handiena garatzea, Viralgen hain zuzen ere. Miramonek demostratu du azken urteotan garatzeko gaitasuna, eta Udalak

bide horretan laguntzaile izan da eta izango da etorkizunean ere.

Mubil ere abian da. Bere lehen pausoa Tolosan eman badu ere, Eskusaitzetan lanean ari gara Aldundiarekin eta Jaurlaritzarekin batera elektromugikortasun poloa bertan kokatzeko. Beste Erakundeekin elkarlanean europar funtsak lortu ahal izateko esku artean daukagun proiektu garrantzitsuenetarikoa hau da, hain zuzen ere bete betean ematen duelako Europar Batasunak finkatzen dituen helburuekin.

Azken urteotan gure Hirian garrantzia irabazi duen beste jarduera bat turismoa da. Bizi dugun egoera honetan zailtasun handiak dituena. Indarrean dagoen Plan Zuzentzailean argi esaten zen Iraunkortasunaren aldeko apustua egin beharra zegoela turismoari dagokionean. Gaur bizi dugun egoerak erabat baieztatzen du apustu hori zuzena dela. Garai zail hauek gainditzea dagokio orain, etorkizunean iraunkortasun horren aldeko apustua berretsiz

b) Gizarte-kohesioa

Pandemia gertatu aurretik lan ildo nagusienetariko bat hau bazen, egoera berri honetan garrantzi handiagoa hartzen du gizarte kohesioaren aldeko lanak.

Sin lugar a dudas, cuando decía que posiblemente en esta nueva coyuntura había ejes del programa de gobierno que adquirirían nueva relevancia, éste es uno de ellos.

Desde el punto de vista de recursos disponibles, creo que coincidiremos plenamente en marcar este eje como absolutamente prioritario. Es objetivo de este gobierno dar prioridad a las necesidades que se producen en este ámbito. De hecho ya está siendo así. La curva de las Ayudas de Emergencia Social y la de las propias ayudas del Ayuntamiento ha cambiado de tendencia a partir de marzo. Lo que era una tendencia descendente ha adquirido otra vez una tendencia

ascendente, tanto en número de beneficiarios como en monto total. Nuestros cálculos indican que de aquí a fin de año se incrementará en un 36% el importe destinado a las ayudas de emergencia social (871.864 euros más que en 2019) y un 21% el de las ayudas municipales (114.039 euros más que en 2019). Es firme compromiso de este Gobierno atender todas las solicitudes que se produzcan.

La protección de las familias y los menores, así como la mejora en la atención a mujeres víctimas de la violencia machista son también ejes de actuación fundamentales en la actual tesitura. Por ofrecer un dato relevante, el número de familias atendidas por los servicios sociales se ha incrementado un 10% hasta setiembre. Se han atendido 2.120 nuevas familias.

Mencionaré también la labor realizada durante este tiempo con personas en riesgo de exclusión, especialmente personas sin hogar. La respuesta dada durante el confinamiento y la posterior desescalada han posibilitado iniciar procesos que de otra manera no hubieran resultado posibles. Es un trabajo difícil, en el que hay avances y retrocesos, pero estoy convencido de que el esfuerzo merece la pena. Y es un esfuerzo que debemos seguir haciendo.

En lo que se refiere a la atención a personas mayores he mencionado ya la iniciativa Lagunkate, una iniciativa que nos ha ayudado a contactar con personas y conocer su realidad. Esta iniciativa y su seguimiento permite hacer una labor preventiva fundamental, para conocer la situación de muchas personas que viven solas en nuestra ciudad. La mayoría además mujeres.

Amaitzeko, aipatu nahi dut Donostiak jada betetzen dituela Zerbitzuetako zorroak zehazten dizkion zerbitzu guzti guztiak. Ekainean erabaki zuen udal gobernuak, 2020 urtearen amaierarako aurreikusita genituen eskusiorako pisu guztiak martxan jartzea. Erabaki honekin (eta gizarte zerbitzuetako gizarteratze arloko lan eskergari esker) Donostiak Zerbitzuetako Zorroak zehazten dizkion zerbitzu guzti guztiak

betetzen ditu une honetantxe, 84 plaza baititu emergentziazko pisuetan eta 21 eskusiorako tutelaturako pisuetan. Sekulan ez dugu izkutatu hau lehentasuna izan dela guretzat, eta aurreko legealdian errekurtsio horren nondik-norakoak definitu genituen, eta urte eta erdi honetan abian jarri ditugu: hezitzaileak kontratatu eta pisuak lortu eta hornituta. Egoera ekonomiko oso konplikatu batean, udal gobernu honek ez ditu gutxien dutenak albo batean utzi.

Badakigu, hala ere, dekretuak zehazten duen eta Gipuzkoako eskualde askok ez duten bazterketa egoeran dauden pertsonentzako eguneko gure zentroak (HESTIA deritzanak) ez dituela bete beharreko baldintzak betetzen eta hori dela eta hurrengo hilabeteetan kale egoeran dauden pertsonen elikadura eskuratzeko aukera jarriko dugu martxan.

d) Etxebizitza eta Hirigintza

Gure Hirian etxebizitza eskaintza berriak sustatzeari ekin diogu eta ekiten jarraitzeko asmoa daukagu. Urumeako Erriberetako garapenekin aurrera egin da, Txomin eneak aurrera egiten jarraitzen duelarik. Deklarazio honen atarian aipatzen nituen hiriaren datuen artean, hiriaren biztanle kopuruaren igoera aipatzen nuen. Guztira 2018an baino 849 biztanle gehiago baldin badauzkagu, horietatik Loiolako auzoak 641 irabazi ditu. Txomin enearen ondorio da hori. Gainera, horietatik parte handi bat Babes ofizialeko udalaren etxebizitzak dira. Orain garatzen ari dira Jaurlaritzak eskuratutako orubeak ere, auzoa osatzen jarraituko delarik.

Espero dut Martuteneko kartzela ahalik eta azkarren tokiz aldatzea, auzo osoaren garapena ahalbideratuz. Hala eskatu diot Barne Ministroari berriro ere orain aste gutxi.

Hainbat izan dira planeamenduari dagokionean azken hilabeteetan Pleno honetara ekarri diren espedienteak. Eta hurrengoetan ere ekartzen jarraituko dugu.

Inpernua izango da seguruenik garatzen ikusiko dugun hurrengoa, eta denbora gutxi barru espero dut Aldakoenea ere Pleno honetara ekarri ahal izatea.

Koartelekin ez dugu etsitzen, eta gune hori hiriarentzat eskuratzeko borrokan jarraituko dugu.

Gure asmoa da ere Plan Orokor berria egiteko lehen pausoak ematen hasia, bistakoa baita beharrezkoa suertatzen dela tresna hau egungo egoerara egokitzea.

Etxebizitza lortzea da gure hiriak izaten jarraitzen duen zailtasun handienetako bat, guztiok dakigun bezala. Bereziki gazteenei eragiten dien zailtasuna da hau, Donostian euren bizitza proiektua garatzeko arazo nagusienetako baita. Hiriko etxebizitza plana aurrera eramaterakoan horri erantzuna ematea izango da helburu nagusienetarikoa.

Bestalde, eraikia dagoen parkea merkaturatzeko neurrien artean aipatu nahiko nuke oposizioko beste talde batzuekin adostuta, etxebizitza hutsek duten Ondasun Higiezin Inguruko Zergaren errekerria igo egingo dela Donostian, eta baita ere etxebizitza erabilerara zuzentzeko asmoz, erabilera turistikoa duten etxebizitzaren jardueraren lizentzia ere igoko dela.

Azkenik, etxebizitza eskubideaz hitz egiterakoan kaleratze arriskua dagoen egoeretan Udalak egiten duen bitartekotza lana ere balioan jarri nahiko nuke. Ez da erraza izaten, udal batek dituen tresnak mugatuak direlako, baina honelako egoeretan beti gainean egoten gara, eta askotan, egindako lanak izan ohi du bere emaitza, orain egun gutxi gertatu den bezala.

Hirigintzaz ari garen honetan, derrigorrezkoa da Hirigintza Ondarea eta Eraikia Babesteko Plan bereziaren berrikuspena aipatzea. Hori berrikusteko konpromisoa hartu zuen Udal Gobernuak, merezi duenari babes egokia emateko asmoz.

Hasitako prozesuak amaiera epe laburrean izango du. Espero dudana da behingoz segurtasuna eskainiko duen baliozko tresna izatea, gai honen inguruan dagoen etengabeko eztabaidak kalte egiten baitio hiriari.

e) Gizalegezko baloreak eta Giza Eskubideak

Atal zabala da hurrengoa, baina zabala bezain garrantzitsua.

Atal honetan aipamen berezia merezi du gizon-emakumeen arteko erabateko berdintasunaren aldeko konpromisoak. Bide horretan, onartu berri dugu IV. Berdintasun Plana. Plan berri hau, aurrekoaren neurketa egin ondoren, eragileekin batera elkarlanean eginga da eta hurrengo urteetarako ibilbide orria finkatzen du.

Baina berdintasunarekin batera, pertsona guztien eskubideen errespetatzen dituen Hiria eraiki behar dugu, indarkeria sexista salatuz edo LGTB+ pertsonen eskubideen ikusgaitasuna bultzatuz. Horrekin batera, kultura aniztasuna kontuan hartzen duen Hiria eraiki behar dugu. Zalantzarik gabe, hasieran aipatzen nituen demografia datuei erreparatzen badiegu, hor erronka handia izango dugu hurrengo urteotan.

Azkenik, aipatu nahiko nuke krisi egoera honetan nazioarteko kooperazio arloan egindako esfortzua. Atal honetan, gure Udalak egiten duen elkarlanak ez du egoera ekonomikoak ekarri dituen eragina ezagutu. Zailtasunen gainetik mantentzea erabaki dugu.

Hablando de valores y convivencia en nuestra Ciudad, en el actual contexto y observando con mucha preocupación la degradación del clima político, me gustaría hacer referencia al importante papel que jugamos al respecto los representantes políticos de este Ayuntamiento en este momento.

Creo sinceramente que las dos anteriores legislaturas han sido muy positivas en lo que respecta a la convivencia en el seno

de este Ayuntamiento y también en nuestra Ciudad. Nuestro comportamiento y el clima que generamos tiene una notable incidencia en nuestra Ciudad.

Por supuesto que cada uno debe poder defender aquello en lo que cree, discrepar en aquello con lo que no está de acuerdo y criticar lo que no le parece bien. Pero creo que ahora más que nunca es importante que no olvidemos cuáles son las líneas rojas que deberíamos intentar no traspasar en el debate político.

Además del marco general que representan los Derechos Humanos, que son la base compartida de nuestra convivencia, creo que en política deberíamos ser capaces de respetarnos unos a otros.

Y lo digo porque asistimos a espectáculos poco edificantes a nuestro alrededor. Actitudes que buscan el enfrentamiento, alimentan el odio y pueden acabar generando consecuencias que creo nadie deseamos.

Creo además que en las actuales circunstancias, nuestros ciudadanos ni entenderían ni perdonarían que en lugar de tratar de dar la mejor respuesta a esta situación, nos enzarzamos en descalificaciones y debates como los que vemos en otras instituciones estos días.

Tenemos que seguir trabando por la promoción de los Derechos Humanos y los valores que éstos representan en nuestra Ciudad. En materia de memoria histórica, de reconocimiento de las víctimas, de promoción de la convivencia. Este año no ha sido fácil poder desarrollar algunas de las iniciativas que todos conocemos en estas materias, los recorridos de la memoria histórica, los actos de recuerdo a las víctimas de la violencia en Donostia han visto trastocados sus calendarios, pero tenemos la firme intención de seguir adelante con estas iniciativas que hacen de nuestra Ciudad una Ciudad mejor.

f) Erreferentziazko hiria euskararen, kulturaren, sorkuntzaren eta aniztasunaren sustapenean.

Donostiako udalerrian eta udal administrazioan euskararen erabilera areagotzeko helburuarekin, 2020-2024 tarterako Euskararen plan orokor berria onartu berria da. Eragile ezberdinekin landutako plan honek erabileran jartzen du indarra, zalantzarik gabe hori baita esku artean daukagun erronka nagusia.

II. Euskaraldiaren atarian gauden honetan, uste dut gaurkoan merezi duela aipamena eta deialdia egitea. Udala oso aktiboki inplikatu da aurtengoan ere, jada 500 pertsona baino gehiagori eragiten dieten 226 arigune identifikatu ditugu udal administrazioari lotuta daudenak, eta seguru nago oraindik gehiago lortuko ditugula.

Hiritar guzti guztiak animatu nahi ditut bigarren euskaraldi honetan aktiboki parte hartzera.

Kulturaren atalari dagokionean, aurtengo egoera bereziaren berri eman dut jada, gurean duen garrantzia azpimarratuaz.

Oztopoak oztopo, egitasmo nagusienak aurrera jarraitzen dute, ez bakarrik Donostia Kulturak bereak dituenak bakarrik, baita ere beste Erakundeekin elkarlanean garatzen ditugunak: Zinemaldia, hamabostaldia eta nola ez, Tabakalera.

Hiriak kulturaren eta bereziki artearen alde egiten duen lan horretan eman ditugu lehen pausuak helburu bezala jartzen genuen haizearen orrazia gizateriaren ondare izendatzean. Uste dut 2024. urtea Chillidaren urtea bilakatzeko lanean hasi beharko genukeela, artista jaio zela 100 urte beteko diren honek aitzakia paregabea eskaintzen baitu artista donostiar handiaren ekarpena balioan jartzeko

Hiriari erabat lotuta geratuko den uharteko itsasargiaren proiektua ere aurten amaituko da, nahiz eta seguruenik

datorren udaberrirarte itxaron beharko dugun horretaz gozatzeko. Ederra izango litzateke Cristina Iglesiasen lan hau bizi dugun egoera honen irteeraren sinbolo bilakatzea.

g) Hiri jasangarria

Izenburu honen pean klima aldaketaren aurka borrokatzeko estrategia kokatzen da bereziki.

Klima DSS2050 estrategiak gure hiriaren ibilbide orria zehazten du. Batez ere, gas isuriaren kopurua nabarmen jeitsiz eta etxebizitzaren energia kontsumoa hobetuz.

Helburu hauek lortzen lagunduko dute Mugikortasunaren arloan indarrean dauden eta datozen urteotarako aurre ikusten ditugun egitasmoak:

- BEI, autobus elektriko adimendu proiektuak, zero isuriko linea oso bat abian jarriko du gure hirian.

- Bizikleta publikoa: abenduan izango dugu dBiziren zerbitzu berria, estazio gehiagorekin, eta bizikleta publiko zerbitzua berriz ere martxan jarriko garraio sistema hau indartuz.

- Topoa: ezinbesteko azpiegitura izango da, etorkizuneko Donostiaren garraio sisteman sakoneko aldaketa ekarriz. Egun lanek izan dituzten ustekabeko arazoek atzeratu egingo dute aurre ikusita zegoen egutegia, baina Topoaren sistemak benetako eraldaketa ekarriko du Donostiara, auto gehiago errepidetik atereaz eta oinezkoentzako hiri hobeagoa sortuz.

- Abiadura Haundiko Trena: Donostiako irisgarritasunerako ezinbesteko azpiegitura izango da, egun ditugun mugak zabalduz. Atotxako geltoki berriaren lanak hasita daude, eta gure hiria izango da azpiegitura hau amaituta izango duen lehen euskal hiriburua.

Europar proiektuak

Gainontzeko erakundeekin batera, Donostia gogor ari da lanean Europar Batasunak finantzatuko dituen proiektuen banaketan paper bat izateko. Hiriak dagoeneko begiz jota ditu programa horretara aurkeztuko dituen egitasmoak, eta konfidantza dugu euskal erakundeek bultzatuko dituzten ekimen horietakoren bat baino gehiago gure hirian kokatuta izatea.

h) Hiri irisgarria, garbia eta zaindua

Irisgarritasunaren bidean lanean jarraituko dugu:

-beharra duten hiriko guneetan igogailu berriak eraikiz. Azkena, Larratxoko igogailua, martxan da dagoeneko.

-TAO sistema berrian, euskal irisgarritasun legeak agintzen dituen mailako makina berriak ere laster izango dira gure kaleetan, elbarrituentzako zerbitzu egokiagoak eskainiz gainera.

i) Lurralde oreka eta kohesioa

El Gobierno municipal va a seguir profundizando en el camino de la descentralización administrativa iniciada en la pasada legislatura.

Tenemos como objetivo articular un mejor funcionamiento del Distrito Este, dotándole de las dinámicas y estructuras que lo conviertan en una herramienta eficaz para esta zona de la ciudad, perfectamente integrada en el normal funcionamiento de la administración municipal.

Además, han comenzado ya los trabajos de la comisión de trabajo dirigida a la futura creación de la figura de una Entidad Menor en Igeldo, lo que permitirá una mejor gobernanza compartida de este barrio donostiarra.

j) Hiri osasungarria

Donostia es una ciudad saludable. Los índices de práctica deportiva en la población nos sitúan en cabeza de la mayor parte de los rankings. Los y las donostiarras, viven y practican unos hábitos saludables.

En este sentido, quiero hacer mención especial a la principal inversión que está realizando el Ayuntamiento en instalaciones deportivas: el polideportivo de Altza, con todas sus dificultades, está en construcción, de forma que seremos capaces de poner en funcionamiento esta infraestructura que de el servicio que se merece en esta parte de la ciudad.

4.- Udalaren funtzionamentuaren hobekuntza: Gobernu ona.

Ez dut ukatuko aurtengo egoerak eragin berezia izan duela. Baina egoera horrek berak hainbat erabaki azkartuko dituela uste dut.

Hala, are ageriago utzi du udal zerbitzuak modu digitalean eskaintzeko beharra, hiritarren udal administrazioarekin modu ez presentzialean erlazionatu ahal izateko.

Bide horretan, udal zerbitzuak modu digitalean modu eraginkor batean eskaintzeko proiektua abian dugu, eta ziur naiz legealdia amaitu baino lehen urrats haundiak ikusiko ditugula arlo honetan.

Udal administrazioa helburu batekin ari gara berrantolatzen: hiritarra erdigunean jarriz eta zerbitzu hobeago bat eskainiz.

5.- Udalaren Finantzei buruzko aipamena. 2021eko aurrekontuen aurre ikuspena.

Como consecuencia de la pandemia, la situación económica general de nuestra ciudad y la de nuestro Ayuntamiento en

particular se ha visto fuertemente resentida. No en vano estamos ante una situación sin parangón que ha impactado en nuestra actividad cotidiana, y también en nuestra actividad económica y productiva con una fuerza e intensidad no conocida desde hace muchos años.

También es verdad que, afortunadamente, el impacto económico se ha moderado desde el principio de esta crisis. Sin duda, las múltiples iniciativas que hemos tomado las administraciones públicas, incluido, como no, nuestro Ayuntamiento, estoy seguro que habrán coadyuvado a ello.

Un claro ejemplo de ello es que los fondos que recibimos de la Diputación Foral a través del denominado FFOFIM, que es el que nos aporta nuestra parte de la recaudación de los grandes impuestos, han mejorado sus previsiones, pasando de una escalofriante y ejecutiva disminución del 20 por ciento a una más moderada, pero todavía muy significativa del 15,86 %, 23 millones menos de los inicialmente previstos para este año 2020.

También es cierto que nuestra propia recaudación de impuestos, tasas, precios públicos y otros ingresos corrientes ha moderado sus pérdidas y ahora la situamos en 8 millones por debajo de los previstos para este año.

Si a eso añadimos que hemos podido materializar determinados nuevos ingresos extraordinarios por valor de 6 millones de euros, y que hemos podido contener el gasto corriente sin que los servicios esenciales se hayan visto afectados, el déficit previsto para este año 2020 lo podemos cuantificar en estos momentos entre 40 y 45 millones de euros.

Es un déficit importante, sin duda, pero estamos esperanzados y afrontamos la situación económica con decisión. Estamos dispuestos a hacer esfuerzos extraordinarios en nuestras cuentas públicas para que nuestros conciudadanos no vean mermados los servicios de calidad que se merecen.

Estos esfuerzos condicionarán el futuro, sí, pero no hasta el punto de hipotecarlo y de dejarnos sin margen de maniobra ante lo que pueda venir.

La prudencia en la gestión de las cuentas públicas que ha tenido este equipo de Gobierno es la que nos ha ayudado a afrontar esta crisis sanitaria y económica sin dejar a nadie atrás y dotando de recursos extraordinarios cuando ha hecho falta a las partidas destinadas a la acción social y al apuntalamiento de la actividad económica.

Esta prudencia nos ha llevado a haber tenido que replanificar temporalmente muchas de las inversiones que teníamos previstas en nuestros presupuestos. Tenemos que también ver cuáles son los ingresos definitivos que vamos a tener este año 2020 y la previsión de los que razonablemente se darán el año que viene.

Y he utilizado el termino replanificar, porque eso es lo que estamos haciendo. No renunciaremos a ninguna inversión que sigamos considerando que es necesaria para la evolución de nuestra ciudad, pero las tendremos que hacer más tarde; la situación económica nos obliga a ello.

Puedo anunciar que a muy corto plazo reactivaremos inversiones que teníamos hibernadas por valor de 13 millones de euros.

Para financiar y acelerar estas y otras inversiones, destinaremos los 6,7 millones de euros de remanentes que tenemos en nuestras cuentas, y si hace falta nos podremos beneficiar de las nuevas posibilidades presupuestarias que tenemos grandes expectativas de poder conseguir, aunque la forma de materialización de muchas de ellas todavía a día de hoy es una gran incógnita.

Estamos dispuestos a ampliar nuestro nivel de endeudamiento de manera prudente pero decidida, y si la situación lo requiere podríamos llegar a duplicar este año la cuantía del préstamo

que normalmente solemos obtener, llegando a los 26 millones de euros.

El Ayuntamiento está trabajando ya en el Presupuesto del año que viene, y la previsión que manejamos es que este se pueda aprobar en el primer trimestre del año que viene, una vez tengamos claro el horizonte fiscal y financiero en el que nos moveremos en los próximos meses.

4.- Una mirada al futuro con optimismo

La situación que vive nuestra ciudad hoy y que he intentado describir con detalle puede parecer preocupante. Ciertamente, y con una visión de corto plazo, lo es.

Pero no quiero concluir mi intervención con un espíritu pesimista.

Estoy convencido de que dentro de un año el horizonte será mucho más alagüeño que el que adivinamos hoy.

Estamos ahora mismo en el ojo del huracán.

Pero los pilares sobre los que se asienta nuestra ciudad, tanto en lo que a la administración municipal se refiere como en lo que a la sociedad civil respecta, son firmes y sólidos.

Y estoy convencido en que también en esta ocasión seremos capaces de gestionar las circunstancias a las que hoy nos toca hacer frente y poder revertir la situación.

Donostia ha sabido sobreponerse en el pasado a otras crisis, y también lo va a hacer en esta ocasión.

Donostiar guztien lankidetzaz, guztion ahaleginaz, arlo publiko eta pribatuaren arteko elkarlanaz, aurre egingo diogu egun bizi dugun krisialdiari. Eta orain ikusten ditugun hodei beltzen atzean, eguzki dizdiratsu bat altxako da.

Horretarako, hemen gauden ordezkari guztien babesari eta lankidetzari dei egin nahi diot, guztiok bat gatzelako helburu batekin: Donostiaren eta donostiarren bizi baldintzak hobetzea eta hiri oparoago bat eraikitzea.

Eskerrik asko.